

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 819/2023 Erabakia, abenduaren 12koa. Onestea basogintzako laguntza planaren 2024ko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 8/2023 Foru Dekretuaren bidez, basogintzarako laguntzen planaren oinarri arautzaileak onartu ziren.

Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldirako aurrekontu proiektuan partida hauek daude:

40209. G/172400/76290410	Mugaketak eta mugarritzeak 2024	50.000,00
	Etorkizuneko ekitaldietarako zuzkidurak 2025	50.000,00
40209. G/172400/76290411	Mendi publikoetarako laguntzak 2024	560.000,00
	Etorkizuneko ekitaldietarako zuzkidurak 2025	580.000,00
40209. G/172400/78000401	Mendi partikularretarako laguntzak 2024	200.000,00
	Etorkizuneko ekitaldietarako zuzkidurak 2025	200.000,00

2024rako Basogintzako Laguntzen erakunde onuradunek inbertsioak gauzatzeko behar adina denbora izan dezaten, beharrezkotzat jotzen da gastuaren izapidetze aurreratua egitea.

Deialdia ebazteko baldintza da 2024ko ekitaldirako aurrekontu antolamenduan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

Nekazaritza zuzendaria ados dago proposamenarekin.

Horrenbestez, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia azertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea basogintzako laguntza planaren 2024ko laguntzen deialdia, izapidetze aurreratuaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 8/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileetan ezarritakoarekin bat etorriz:

Laguntza lerroak edo neurriak:

- Basotzea (81 kodea).
- Basoetako kalteak prebenitzea (83 kodea).
- Basoetako kalteen konponketa (84 kodea).
- Ingurumen helburuak dituzten baso jarduketak (85 kodea).
- Baso potentziala hobetzeko inbertsioak (86 kodea).
- Baso sektorearen garapenarekin, modernizazioarekin edo egokitzapenarekin lotutako azpiegiturak (43 kodea).

– Basoen kontserbazioa (99 kodea).

Eskaerak aurkezteko epea.

30 egun baliodun ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kreditu erreserbak.

PARTIDA	NEURRIA	2024KO URTEKOA	2025KO URTEKOA	DEIALDIA, GUZTIRA
Guztira, oro har		810.000,00	830.000,00	1.640.000,00
Mendi publikoetarako laguntzak, guztira 40209. G/172400/76290411		560.000,00	580.000,00	1.140.000,00
Mendi publikoetarako laguntzak	43	290.000,00	220.000,00	510.000,00
Mendi publikoetarako laguntzak	81	30.000,00	350.000,00	380.000,00
Mendi publikoetarako laguntzak	83	200.000,00	0	200.000,00
Mendi publikoetarako laguntzak	84	10.000,00	0	10.000,00
Mendi publikoetarako laguntzak	86	10.000,00	10.000,00	20.000,00
Mendi publikoetarako laguntzak	Kontserbazio	20.000,00	0	20.000,00
Mugaketak eta mugarritzeak, guztira 40209. G/172400/76290410		50.000,00	50.000,00	100.000,00
Mugaketak eta mugarritzeak	85	50.000,00	50.000,00	100.000,00
Mendi partikularretarako dirulaguntzak, guztira 40209. G/172400/78000401		200.000,00	200.000,00	400.000,00
Mendi partikularretarako dirulaguntzak	81	50.000,00	200.000,00	250.000,00
Mendi partikularretarako dirulaguntzak	83	130.000,00	0	130.000,00
Mendi partikularretarako dirulaguntzak	84	10.000,00	0	10.000,00
Mendi partikularretarako dirulaguntzak	86	10.000,00	0	10.000,00

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, deialdi osorako hasiera batean gordetako zenbatekoaren adinakoa izango dira.

Neurriren batean kreditu soberakina egonez gero, beste neurrietara bideratu ahalko da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den oinarri arautzaileen 9. artikuluan.

Bigarrena. 2023ko deialdian laguntzak eskatu zituzten baina aurrekontu kreditua agortu zelako laguntza jaso ez zuten erakundeek, inbertsio berberetarako eta aurrekontu bererako deialdi berri honetan parte hartu nahi badute, idazki bat aurkeztu beharko dute, aurreko deialdian aurkeztutakoa oso-osorik berretsiz. Hala ere, "Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeke edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak" neurrian (43 kodea) eskatutako inbertsioen lehentasun ordena aldatu ahal izango dute, eta, nolana ere, berrespen idazkia bete beharko dute, eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera.

Eskaera horiek 2024ko deialdira aurkeztutakoekin batera ebatziko dira, eta oinarri arautzaileetan ezarritako lehentasun irizpideak batera aplikatuko dira.

Hirugarrena. Dirulaguntzak emateko baldintza etengarria izango da kreditu egoki eta nahikoa egotea Arabako Foru Aldundiaren 2024rako eta 2025erako aurrekontu antolamenduan.

Laugarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Inguruneko diputatuaren esku uztea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren eta foru Gobernu Kontseiluari dagozkion administrazio egintza guztiak emateko ahalmena, lege ezarritako salbuespenak salbu, eta aurrekontua gauzatzeko foru arauan gastua baimendu eta antolatzeke ezartzen diren eskumen eta mugen kalterik gabe.

Bosgarrena. Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, edo, nahi izanez gero, berraztertzeke errekurtsioa, hilabeteko epean, Foru Gobernu Kontseiluari. Hori guztia, bat etorritz

Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua xedatutakoarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua ezarritakoarekin lotuta.

Seigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 18a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua

AMAIA BARREDO MARTÍN

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA